

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1 h 45 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 900 hitz gehienez. 	35 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar duzu, eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	70 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak betetzeko (1, 2, 3...) zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera** dago.

ONDARE NATURALA BERRESKURATZEKO APUSTU POLITIKOA BEHAR DA

Euskal Herrian bizi garenok gure lurraldearekiko irudikapen ezberdina dugu, lurralde hitzaren esanahia eta mugak aldatu egiten baitira; sarri, testuinguruaren arabera. **1**

Atturri eta Ebro artean, bi estatu eta hiru administrazioetan banatuta dago Euskal Herria. Banaketa hori bera da, hain zuzen, lurraldearen antolamendua oztopatzen duen baldintza. **2** Nola erantzun herri osoaren ikuspegiarekin, hiru administrazio ezberdinek, bakoitzak bere ahalmenen eta interesen baitan diseinatutako lurralde-antolaketari?

Garrantzitsua da lurralde-antolaketarako legedia ezagutzea, ingurumenaren zaintza bermatzeko **3** Baina, lurralde-antolaketarako legedia konplexua bada, legedi horren baitan giza jarduerak tokian-tokian baimentzeko prozedurek amarauna osatzen dute.

Legediaren arkitektura konplexuari (Estatuko eta Europako zuzentarauak eta lege orokorrak, Lurralde Antolaketarako Gidalerroak, Plan sektorialak, Plan partzialak, Hirigintza Plan Orokorrak eta abar), legedia kudeatzeko ardurak dituzten erakundeen aniztasuna gehitu behar zaio: estatuen eskumenekoak (kostaldean, bereziki, estatuena baita eskumen legegile nagusia), aldundiak, udalak, uraren kudeaketaren ardura dutenak (URA ur-agentzia, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa)... Legediaren garapenerako zein kudeaketarako, herritarren parte-hartzea legez araututa dago; baina nola ahaldu herri-eragileak, eta, oro har, herritarrak euren parte-hartzea eraginkorra izateko? Nola ahaldu administrazioaren jardunaren zaintza eta jarraipena egin ahal izateko? Garapenaren izenean, ingurumenean gero eta eragin handiagoa duten proiektuen aurrean, nola erantzun tokian tokitik herri-ikuspegia galdu gabe?

Zorionez, naturak ez ditu banaketa eta antolamendu administratiboak ezagutzen. Basabizitzak ingurumen-baldintzak ditu aukera eta muga; gizakia sistema horren parte da, eta zoritxarrez, gaur-gaurkoz, sistema horren eraldatzaile nagusia da. Euskal Herrian ez dago gizakiak eraldatu gabeko eremurik. Gure lurraldea eta bertako bioaniztasuna gure behar eta nahietarako baliatu dugu. **4** Hori guztia, gainera, herri-ikuspegiarekin egin dezakegu, natura-kontserbazioaren zaintzarako eta berreskurapenerako legedia Europar Batasunean adostu baita Natura 2000 sarearen barruan. Beraz, badugu Euskal Herri osoa hartzen duen legedi bat. Ba al gara horren jabe euskaldunak?

5 Besteak beste, mundu mailako mugimenduaren haizearen norabidean kalera atera den euskal gazteriaren aldarriei erantzuteko.

SAROBÉ, Aitziber. <ziencia.eus>. 2020-12-01.
Egokitua

1. ariketa. Txertatu testu zatia

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A. Izan ere, euskaldunok ez daukagu gure lurraldea bere osotasunean hartzen duen egitura administratiborik.
- B. Proiektuak, asmoak eta azpiegiturak aztertzen ditugunean, gehienetan kontuan hartzen dira eragin ekonomikoa, soziala, ingurumenekoa eta osasunekoa. Eta hiztunengan eta hizkuntzaren goieran ere izan dezakete eragina.
- C. Horrek gure natura-ondarearen eta, beraz, ingurunearen osasunaren galera eragin du, baina oraindik badugu zer zaindu. Eta, hori bezain garrantzitsua dena, badakigu zer eta nola berreskuratu.
- D. Lurralde-antolamenduak ingurumenaren zaintza bermatzeko nolakoa izan beharko lukeen eztabaidatzen hasteko, hauxe da lehendabizi erantzun beharreko galdera: zeintzuk dira gure lurraldearen mugak?
- E. Giza jarduera orok du eragina ingurumenean, eta ingurumen osasuntsuan bizitzea eskubidea denez, administrazioak eragin horiek eta horien ondorioak arautzeko eta kudeatzeko betekizuna dauka.
- F. Euskal Herriaren ondare naturala berreskuratzea eta ezagutaraztea, egun eztabaidaezina den krisi ekologiko globalari erantzuteko ezinbesteko baldintza ez ezik, Euskal Herri osorako proiektu kolektibo moderno eta erakargarria irudikatzeko apustu politiko eraginkorra ere izan daiteke.

■ Idatzi dagokion letra ondoko lauki hauetan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5
Testu zatiak					

Soberakoa

OHARRA: Soberako aukera hau **ez da jaso behar erantzun-orrian.**

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

FEMINISMOA EZ-KAPITALISTA IZANGO DA, EDO EZ DA GAILENDUKO

Boterearen biopolitikak Martxoaren 8a hartu du. Komunikabide guztiek oihartzun handia ematen diote lan- eta kontsumo-grebari, nahiz eta hurrengo egunetan dendak betetzera bultzatuko gaituzten, eta Martxoaren 8an egin gabe geratu zen lan guztiaz arduratzera. «Borroka feminista transbertsal» horrek ezkutuan uzten du auziaren muina, «esplotatzailea» eta «esplotatua» pankarta berean elkartzen baititu, eta, hori ikusirik, borrokan dihardugun emakumeok eztabaida sakon bati aurre egin behar diogu.

Feminismo liberalaren aurpegi ezagun batek, Sheryl Sandberg milioidun handiak, zera adierazi zuen 2018ko Martxoaren 8ko grebara deitu zuelarik: nahikoa izango litzatekeela herrialdeen eta enpresen erdiak emakumeek zuzenduak izatea eta etxebizitzaren erdiak gizonek gobernatuak izatea mundua bizitzeko leku hobea gertatzeko.

Sandbergekin ez du auzitan jartzen kapitalismo globalizatua —ez haren eredu politikoa eta eredu ekonomikoa—, zeina aberastasun pilatzaile handia baita, maila globalean zein lokalean. Mundu-mailan, zortzi pertsonak daukate planeta erdiak bezainbesteko aberastasuna. Kasu guztietan enpresariak dira, gizakien lana eta naturako baliabideak muturreraino esplotatzen dituztenak; eta berdin dio zein generotakoa den enpresa-zuzendaria, edo zein generotakoak diren halako esplotazioaren aldeko legeak egiten dituzten politikariak, helburua bera baita: ahalik eta mozkinik handiena ateratzea.

Komunikabide nagusiek, oraindik ere, parekatu egiten dute feminismoa bera eta eredu liberaleko feminismoa, hau da, «aurrera egitea» eta «kristalezko sabaia» apurtzea ardatz duena, hala emakume pribilegiatu gutxi batzuek gora egin dezaten enpresa-munduan, politika instituzionalean, edo indar armatuetako eta zapaltzaileetako kide direnak mailaz igo daitezten. Neoliberalismoaren aliatu den feminismo horrek ez dakarkie onurarik emakume gehienei; aitzitik, egiaz, kalte egiten die, ez baititu jorratzen emakumeek jasan behar izaten dituzten murrizketa sozioekonomiko eta biopolitiko astunak. Murrizketa horiek berekin dakartzate hautabiderik eza eta desberdinkeria.

Feminismo liberala bateragarria da aberastasunaren eta diru-sarreraren inguruko desberdintasun gero eta handiago horrekin, eta distira progresista bat ematen dio neoliberalismoari, emantzipazioaren kimera batekin ezkutatzuz bere politika atzerakoia. Hierarkizazio soziala indargabetu ordez, hura feminizatzea du helburu, gailurrera heltzen diren emakumeak beren klaseko gizonen parekide izan daitezten bermatuz. «Ekiteko» bidea ematen die emakume profesionaleri eta kudeatzaileei, horretarako baliatzen baitira gaizki ordainduak, migranteak eta langile klasekoak diren emakumeek, zeinak azpikontratatu baitituzte zaintza-lanak eta etxeko lanak egin diezazkieten. Kristalezko sabaia apurtu nahi da, beste emakume batzuk (gehiengoak) behartuz kristal apurtu horiek batzera eta txukuntzera.

Eta aldeak argi daude. Bide batetik joanda, mundu guztiko biztanle gehienek biziak miseriara kondenatuak daude. Beste bideak, berriz, gizateriaren ametsetan betidanik irudikatu izan den mundu mota ekarriko luke: bertan, emakume guztiek izango litzateke aberastasuna eta baliabide naturalak, eta berdintasuna eta askatasuna premisak lirateke, ezen ez xede. Emakumeok jarrera bat edo beste hartu behar dugu. Aurrerantzean ere «berdintasun aukera eta guztiko menderakuntzaren atzetik ibiliko al gara», planeta kiskaltzen ari den bitartean? Edo modu ez-kapitalistan birformulatuko dugu genero-justizia, gizarte berri batera eramanez gaitzan, gaur egungo sarraskiaz harago?

Kontua ez da utopia irudikatuak zirriborratzea, baizik eta argitzea zer bide ibili behar den gizarte justu eta berdinzale bat erdiesteko. Antisistemiko deitura okerra ematen dieten mugimendu antikapitalistekin bat egiteak bakarrik bihurtuko du gure borroka «% 90entzako feminismo».

**JURADO, Nekane. *Berria*. 2019-03-01.
 Egokitua**

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

- 6. Zein da borroka feministak azaleratu beharreko auzia?**
- a) Aldarrikapenen behin-behinekotasuna.
 - b) Kontsumo-grebaren eraginkortasunik eza.
 - c) Emakumeen artean dagoen arrakala.
- 7. Zer leporatzen dio egileak Shery Sandberg aktibistari?**
- a) Genero-ikuspegitik harantzago, bestelako hausnarketarik ez egitea.
 - b) Feminismo liberalaren alde egitea, zeinek gizonzkoen baloreekin bat egiten duen.
 - c) Genero-ikuspegia zenbakietara mugatzea eta kupoaren erdiarekin konformatzea.
- 8. Zein da feminismo liberalaren xedea, egilearen ustez?**
- a) Emakume guztiak ahalduntzea harik eta kristalezko sabaia desagertu arte.
 - b) Emakume profesionaleri bidea erraztea, boterean dauden gizonen pare lehiatu ahal izateko.
 - c) Politika liberalak sustatzea, emakumeen autonomia ekonomikoa lortze aldera.
- 9. Feminismoa ulertzeko moduei erreparatuz gero, zeren artean egin behar dute hautua emakumeek?**
- a) Nork bere ziliborrari begira egin aurrera borrokan ala gizarte osoaren inplikazioa bilatu.
 - b) Utopian oinarritutako egitasmoei jarraitu ala egitasmok ondo mugatu eta zedarritu.
 - c) Klase- eta genero-asimetriak konpontzearen alde lan egin ala egun daukagun klase-gizartean txertatu genero-ikuspegia.
- 10. Feminismoan aurrera egiteko, zein da bete behar den ezinbesteko baldintza egilearen ustez?**
- a) Munduko bidegabekeriei erreparatzea, genero-borrokari lotu beharrean.
 - b) Kapitalismoaren inguruan artikulatutako eredia erabat gainditzea.
 - c) Lehentasunak zehaztea, indarrak ahalik eta ondoen kudeatu eta optimizatzeko.

Ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu.
Bat aukeratu eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu eta lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

Oharrak

- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik**.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa.
 - Euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA AIPAMENEN OSTEAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

TESTU AIPAMENAK

1.

PRESTAKUNTZA ALA BOKAZIOA?

Irakasleen artean, aldiro planteatzen da dilema bat, eta gizartean ere badu oihartzunik. Pentsatzen da, alde batetik, ez dagoela irakasle ona izaterik ez bada irakaskuntzan jarduteko bokazio argirik. Ikuspegi horren aurka, garrantzitsuena irakaslearen izaera eta prestakuntza dela pentsatzen dutenak daude; alegia, bokazio-maila alde batera, prestakuntza tekniko-pedagogiko oneko profesionalen alde egiten dutenak.

Egungo hezkuntza-sistemak irakasle kopuru bat eskatzen du, eta hori lortzea ezinezkoa da bokazioari soilik begiratu gero (ez dira nahiko); gainera, edo agian horregatik, bere funtzioak arrakastaz betetzeko gai izan dadin irakasleriaren lanbide-heziketa sakona eta zorrotza bermatu behar da, hezkuntzan esku hartzen duten zientzietan oinarritutakoa (psikologia, pedagogia, neurozientzia, didaktika, teknologiak eta abar). Horrela bakarrik bermatu ahal da guztiontzat nahi den hezkuntza.

LARROSA, Faustino. *Vocación docente versus profesión docente en las organizaciones educativas*. 2010. Egokitua

2.

NERABEEN ARTEKO GENERO INDARKERIA

Etxeko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiaren datuen arabera, 13 eta 15 urte bitarteko neskatuek gero eta salaketa gehiago jartzen dituzte adingabeen aurka.

Horrek irakurketa bikoitza du: batetik, ona da, gehiago salatzen delako eta salaketa eman beharreko urratsa da indarkeriari aurre egiteko; baina, bestetik, adierazten du jarrera matxistek badarraitela are belaunaldi gazteenen bikoteetan ere. Hain da horrela, ezen Auzitegi Goreneko eta BJKNko presidentek ohartarazi zuen arreta berezia jarri behar zaiola gazteen arteko genero-indarkeriaren gorakada horri, eta adierazi zuen, indarkeria fisikoaz harago, kontzeptua zabaldu eta tipo penal berrien komenientzia, hala nola sextinga edo ziberkontrola ere barne hartzen dituenak.

Eskuratutako datuen argitan, ondorio bi, bata bestea bezain kezagarriak: bat, gazteen eta nerabeen artean, indarkeria matxista gero eta hedatuago dago; eta, bi, gero eta normalizatuago ere badago.

Content Factory. *El ABC*. 2018-09-26. Egokitua

3.

GIZATASUNA EZ DA ERRENTAGARRIA

Pariseko espaloi batean izoztuta hil zen René Robert argazkilaria heriotzak agerian utzi du egungo bizikidetzaren krisia.

Antzinako Grezian, guztion onaz arduratzen ez zena ergela (idioté) zen. Baina gure egunerokoa norberaren arazok ez digute besteenak ikusten uzten. Eta gure hiriek ez dute laguntzen, zeren hiriak ez ditu aspaldidanik arkitekturak marrazten, negozioak baizik: eserileku, espaloi eta enparantzak desagertu egin dira bide eta terrazen azpian.

Legeriak definitzen ditu, ordea, hiriak, eta hezten, halaber, herritarrak. Pertsona bat kalean etzanda ikusteak harritu gaitzan nahi badugu, etxerik gabekoek salbuespena izan behar dute, eta ez araua. Hiri bateko kaleetan dabilzan haur eta adinekoen kopuruak erakusten du hiri horren kalitate zibikoa, bertan bizi direnen balioak; kalean norbait hil eta inor ez konturatzeak ere bai.

ZABALBEASCOA, Anatxu. *El Pais*. 2022-01-31. Egokitua

4.

NOLA HASTEN DIRA GERRAK?

Historiak erakutsi digu mendeetan zehar era guztietako aitzakiak erabili direla gatazkak sortzeko, eta horien ondorioak ezin direla ez kontrolatu ezta irudikatu ere.

Historiari erreparatu besterik ez dago ikusteko, mendeetan zehar casus belli bat sortzeko, era guztietako aitzakiak erabili direla, eta mekanismo batzuk martxan jarri ondoren, oso zaila dela atzera egitea.

Gerrak, neurri batean, arrazoituak izan ahal dira, baina ez dira lurrikarak bezalako istripu naturalak: gizaki-talde txiki batek eragiten ditu, nahiz eta tragedia beste milioika gizakik pairatzen duten.

**ALTARES, Gillermo. *El Pais*. 2022-01-27.
Egokitua**

5.

NEGAZIONISMOTIK 'NEGOZIONISMO'RA

Negazionismoa enpirikoki egiazta daitekeen errealitate bat onartzeari uko egitea da. Ingurumenaren kasuan, energiaren mugak, edo klima-aldaketa antropogenikoa ukatzea. Korrante ideologiko indartsu bat dago horren inguruan zeinean korporazio ekonomikoek eta lider politiko ugari indar handia duten. Ukazioaren arrazoi nagusitzat, sistema ekonomikoak ezin duela deshazkunderik izan, dioskute. Hori gertatuz gero, kaosa gailenduko dela eta denok okerrago biziko garela.

Aspaldiko partez, baina, translazio mugimendu bat ari gara ikusten eta negazionismo ekologikoan egon diren eragile askok ekokapitalismorako bidea hartu omen dute. Biraketa honen arrazoiaren artean, bi dira nagusi. Batetik, krisi sozioekologikoaren zentralitatea agenda politiko mediatikoan jarri izana eta, bestetik, zientziak ekologismoari emandako oniritzia.

**BARCENA, Iñaki. *Argia*. 2021-11-21.
Egokitua**

6.

OSASUN MENTALA ETA HEZKUNTZA EMOZIONALA

Osasun publikoak ez du behar besteko baliabiderik osasun mentaleko arazoei aurre egiteko. Nahasmendu larriek, hala nola agerraldi psikotiko batek edo suizidio-saio batek, asistentzia-zirkuituan lehentasuna badute ere, ondoez emozionalak, sintomatologia psikiatriko arinak eta nahasmendu txikiak linbo asistentzial moduko batean geratzen dira, eta zain egoten dira aste edo hilabeteetako itzarote-zerrenda batean, artatzen dituzten arte.

Gaian adituak direnek defendatzen dute txikitatik indartu behar dela hezkuntza emozionala. Hau da, hurrek txikitatik ulertu behar dute zer den osasun mentala eta nola kudeatu beren emozioak modu osasuntsuan. Adituen arabera, eskola-adinean dauden haurren osasun mentala indartzeak eskola uzteko edo lanerako trantsizioa zaila izateko arriskua murriztu dezake.

**MOUZZO, Jesica. *El Pais*. 2021-11-14.
Egokitua**

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** txertatu testu zatia.
- **Irakurgaia:** «ONDARE NATURALA BERRESKURATZEKO APUSTU POLITIKOA BEHAR DA»

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.
Testu zatiak	D	A	E	C	F

Soberakoa	B
-----------	---

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «FEMINISMOA EZ-KAPITALISTA IZANGO DA, EDO EZ DA GAILENDUKO»

6.	C	7.	A	8.	B
9.	C		B		